



Andoingo Udala



---

## **Hasi dira Leitzarango Otieta tunelaren segurtasuna bermatuko duten lanak**

**.-Lanei ekinda, konponketak hilabete inguruko iraupena izatea aurreikusten da.**

**.-“Erabilera eta segurtasuna bermatzea izango dira Udalaren helburuak”- adierazi du Xabier Fondon, Zerbitzuetako zinegotziak.**

**Andoainen, 23-08-28.-** Hainbat hilabetez itxita egon ostean, ekin diote Otieta tunelaren segurtasuna bermatuko duten lanei. Aurkakorik edo azken orduko ezusterik ezean, hilabete bateko iraupena izango dute.

Gogoratuko dugu badirela hainbat hilabete Otieta tunela itxita dagoela; zehazki, 2022ko ekainean itxi zen lehenengoz lur-jausi bat tarteko. Lehen urrats batean tunelaren parte bat erreparatu zen, baina arrakala berriak aurkituta, segurtasuna bermatze aldera, tunela itxita mantentzea erabaki zen aurreko agintaldian. Orain aurrera eramango den proiektuak tunel osoaren segurtasuna bermatzeko aktuzio ezberdinak egitea aurreikusten da, tartean, ur filtrazioen higadurak saihesteko zigilatzeak, egituraren indartzea...

Udal gobernua jakitun da Otietako tunelaren itxierak hainbat eragozpen ekarri dituela herritarrentzat; baina, halaber, ezinbesteko baldintza da herritarren ongizatea eta segurtasuna bermatzea. “Erabilera eta segurtasuna bermatzea izango dira Udalaren helburuak”.- adierazi du Xabier Fondon, Zerbitzuetako zinegotziak, tunela itxita mentatzearekin sortu diren eragozpenengatik barkamena eskatzearekin batera.